



# BERTAKO PAISIAK LEHIAKETAN IRABAZLE

X. HITZA Argazki Lehiaketako irabazleak Iker eta Ainara izan dira, Zarautzen ateratako argazki batekin 4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2009-10-04

VIIURTEA 1.793.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tirolina jarri zuten balkoitik, eta gaztetxoek ederki igaro zuten. A. IMAZ

## KIROLA ETA JAIA UZTARTU DITUZTE AURRERA EGUNEAN

LEITZA Jai giroan ospatu zuen atzokoan Aurrera Kirol Elkarteak bere eguna; ekitaldi ugari izan zituzten egun osoan zehar herriko plazan 7



Abere ugari eraman zituzten Ferialekura. R. CALVO

## Eskualdekoentzat bi sari Abelgorri Lehiaketan

TOLOSA Tolosako Lopetegi baserriko Raizentzat eta Zizurkilgo Makura baserriko Garrarentzat 4

IÑIGO SARASOLA REALEKO JOKALARIA

«Ekarpenak egiteko gogoz, ondo ikusten dut neure burua»

VILLABONA Futbolari bezala bere ametsetako bat lortu du: Realeko lehen taldean jokatzea 6

•BERRIREKIERA•

berogas

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza, gasa, energia berriztagarriak

Gremioen koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307

www.berogas.com

## Desagertzearen liburua IX



### » Uzturretik

Koldobika Jauregi

**N**ola gogoratu herria garai haietan?

Desagertzearen garaia Amaiur gazteluaren garaikoak ziren, geroztik prozesua gelditu ezezik areagotu egin zen.

Nire garaia Ez dok hamairu

denborakoa zen, Patxi diktadorea oraindik bizirik zegoen eta zenbait euskaldun sutsu ere bai. Geroztik ba zirudien negu gaueko haize kolpe batek denak eraman izan zituela, onak eta txarrak.

Garai ona zen ordea, itxaropentsua, negualdiko egun kazkartu batean, instante batez zerua irekiko balitz bezala eta eguzki izpi batek kristala zeharkatuz arpegia berotuko bagintu bezala. Horrela hasi ginen sentitzen, gero, gero-gero.

Nora joan ote ziren bizitzera asmo on guzti haiek? Ez nago ziur baina zenbait herritarren exilioa hasi zen.

Hogeigarren mendearen bukaeran, gauzak itsusitzen hasi ziren, mahazustak gozo ilun eta usaintsuak hartzeko garaian ziztatu egin zauria bagina eta hurrengo egunean zauria gaiztotu izan balitz bezala.

Euskaldunak liskarrean hasi ziren bere artean, lagunduta azken hogeita hamar urte luzez euskal kulturaren bortxaketaz. Askotan denboraren poderioz ikusten baitiragauzak, eta ilusioa eta kemena herrian bazegoen, buruzagietan diru usaina besterik ez zegoen, eta jakina diruak ez duela hizkuntzarik eta are gutxiago euskara.

Baina erbiak azkar ikusten ba du bere burua azeriak ez du inoiz

presarik, zeren eta badaki azkeanean hortza artean bukatuko duela, eta esan eta izan.

Euskaldunak nagusi, maizterrak bihurtu ziren eta atzo berriak diru tratuetan tratatzen zizutenak hurrengo egunean etsai berriekin hasi ziren tratuan.

Herrigaixoa! Beti kultur borroaren eskuetan.

Euskal indarrak sakabanatzen hasi ziren eta goian izandako haiek «esklaboei lagun eske» baino beranduegi ez baitugu ikusten, ez baitugu ikasten.

Talde guztiak karobian erretako kare-haitza uretan desegiten den moduan xehatzen joan ziren gero eta gehiago, gehiago eta gehiago.

Norbaitek aipatu zuen gure Jainkosa, Anboto eta Mari baina aspaldian joanak ziren.

Horrela hasi zen sakabanatze hau, auto exilioa lur eremu txiki honetan.

Felipe Bigarrenaren bele beltzen zurrunbiloa oraindik hemen dabil nor harapatuko zain.

Badirudi gorpua nekatzeko egina dela eta burua gazte sentitu arren memoria zama handiegia da.

Ez dakit ezertarako balio duen hau dena gogoratzea, egia esan. Honetaz pentsatzen dudana bitartean, nire aurreko mundu honek alde egiten dit.

Pausoz pauso belar ximelak zapalduz goaz, bihotzaren taupadei jarraituz eta burua alegera. Amesteko tokirik baote? Erotzen arigara? Ez da zaila ikusita nortzuekin goazen ero gurdi honetan. Ai! Bruegel. Hik ere zerbaiten susmoaizan hukan.

### E Eztabaida info

**Zer iruditzen zaizu Zizurkilgo eta Villabonako udalek Zubimusu zubia norabide bakarrean jarri nahi izatea eta beste bidea oinezkoentzat uztea?**

■- «Oso ondo dagoela esango nuke, hala ere gehiena kejutuko direnak kotxezkoak izango dira, eta ez dut uste arrazoirik dutenik Zizurkildik irten eta sartzeko ez baitago arazorik. Ea ba oinezkoentzako gune gehiago errekurperatzen ditugun».

■- «Ondo iruditzen zait, baina Zubimuxuk sortzen duen arazotako bat besterik ez da trafikoarena eta oinezkoena. Eta uholdeak zer?».

■- «Ba niri oso ondo iruditzen zait norabide bakarra jarri izana. Bi norabidetakoa izateko estuegia da eta oinezkoentzako, berriz, oso arriskutsua. Baina ados nago txukundu egin behar dela erabakitzean, zeren-eta obretan dagoela dirudi».

■ **JEXUX.** «Zizurkildar bezala ondo iruditzen zait. Hobeto bereiztea oinezkoen gunea ere ez litzake gaizki etorriko. Jendeari errespetu pixka bat ere eskatuko nioke, kotxez dabilenari belozidadea murriztea eta bi guneak bereizteko erabiltzen diren elementuak errespetatzea.

Zubimuxutik beti ibili garenok eskertuko genuke».

■- «Zergatik aldatu ondo funtzionatzen zuen gauza bat?».

■ **Zizurkildarra.** «Ongi dagoela uste dut, baina zubia pixka bat txukundu beharra dago. Orain dagoen bezala, obretan ari direla dirudi. Beste aldetik (Kiroldegjaren ondo zubitik) joan daiteke Zizurkilera, beraz ez da arazoa. Gainera, lehen nahiko lan izaten zen, bi auto eta oinezkoak topatzen zirenean Zubimusun».

**Mendiluze, Agirre, Irazu eta Muñoa Bertsolari Txapelketa nagusian lehiatuko dira. Hauetako norbait izango al da Andoni Egañari txapela kenduko diona?**

■- «Andonik jada nahikoa egin du, ea aurtan Lujanbio, Arzallus, Elortza edo Gaztelumendi bezalako- ren batek kentzen dion!».

■- «Oraindik ere Andoni Txapel- dun!».

■- «Zaila izango da Andoniri txapela kentzea. Hala ere, espero dut ongi egitea hauek. Kalitate oneko bertsolariak dauzkagu hemen. Animo lauei eta ea ba urrutira iristen zareten. Gutxienez, BECera».



## Errekonozimendua bertakoei

**LEABURU** ■ Gaurko norgehiagokan Realeko harrobiko jokalariek batek gola sartzen badu, eta harrobiko atezainak penaltiren bat gelditzen badu, Leaburuko Mahala baserriko produktuez osatutako saskitxo bat jasoko du

sari bezala. Hala izango da gaur, eta baita hurrengo partidetan ere. Ekimen honekin, Mahalak bertako futbol ondareari «errekonozimendua eman» eta «emaitza onak lortzen» lagundu nahi du. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## Pintxoan dastaketak lagundurik, egun alaia azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alaia eta animosoa suertatu zen, eta goizeko lehenengo orduetatik ikusi ahal zitekeen jendea postuetan. Biga enkantearen eragina nabarmendu daiteke, besteen artean, eta salmentak goizaren bukaera aldera ez ziren batera makalak izan.

Udaletxeak antolatuta, atzo pintxo prestaketa eta dastaketa izan genuen, Roberto Ruiz eta Mireia Carcelleren eskutik. Azokako postuetan erosketak egin eta gero, pintxoak prestatu zituzten Zerkausian bertan, eta azkenean jendearen artean banatu.

Aukeran izan zituzten bertako onddoak, ziza horiak eta lanpernak, perretxikoen artean, babarrun berriak, bai txuriak eta baita beltzak, azak, azaloreak edota bruselazak, eta espinakak berritasunen artean.

Fruta zerrenda ere oso ugaria izan zen. Aurtengo lehenengo errezil sagarrak, mizpiradiak, pikua, matxakanak, kiwiak, intxaurrak, urrak, sasiurrak edota gaztainak, besteen artean.

### » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

#### Landareak

Azalea	7,00	10,00
Erromeroa	4,00	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-

#### BERTAKO PRODUKTUAK

##### Perretxikoak

Onddoa	14,00	30,00
Lanperna	15,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	20,00	-

#### Fruta

Udarea	1,00	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Irasagarra	1,00	-

#### Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Baratzuri freskoa	1,50	-
Porrua	1,00	4,00

#### Barazkiak (kiloa)

Babarrun berria	12,00	-
Ibarrako piparra	4,00	6,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-

#### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

##### Perretxikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Arroza	1,90	2,00
Mermelada	3,00	3,60

## Lehen eta orain



## Tolosako tren geltokiaren bilakaera



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LABGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldean hiru ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 98 43 00.

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu konpromisorik gabe. 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).

### GALDUTAKOAK

■ **Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak.** Joan zen igandean, irailaren 27an, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Erniorako bidean, Intxurbi baserriaren inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 695 749 825 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.

# BERTAKOAK IRABAZLE



1



2



3

## HITZA Argazki Lehiaketa »

Harpidedunen bozkak zenbatuta, Iker eta Ainarak, Maria Dolores Arrietak eta Naiara Olaetxeak irabazi dute, hurrenez hurren, Argazki Lehiaketa.

### ERREDAKZIOA

X. HITZA Argazki Lehiaketa iritsi da azkenean amaierara. Zortzi argazki aukeratu zituen epaimahaiak eta guztietan harpidedunen iritzi Ikerrek eta Ainarak Zarautzen aterako argazkia izan da ederrera. Zarautzik gertu joan ahalko dute lehiaketari esker, Getariako Saiaz hotel dotoren bi lagunentzat asteburuko egonaldia irabazi baitute, gosaria barne. «Argazkiak itsasoaren haserrea adierazten du», azaldu ziguten argazkia bidali zutenean.

Bigarren sailkatua Tolosako Naiara Olaetxea izan da, Vietnamen ateratako argazkiarekin. «Vietnameko iparraldeko herririka batean, Sapa izenekoan atera nuen, Hanoioko iskanbilatik alden du eta lasaitasuna topatu genuen. Hmong etniako jendea bizi da hemen, eta etnia honetako neskatxo bat agertzen da argazki honetan, bere anaiatxoa bizkar gai-

nean daramala», azaldu zigun berak. Berarentzat, Tolosako Karlis argazki dendaren eskutik argazki erreportaje eder bat izango da.

Hirugarren saria ere etxean bertan ateratako argazki batek eraman du. Egilea, berriz, Maria Dolores Arrieta izan da. «Amasan, Garmendi baseritik ateratako argazki hau bidaltzen dizuet, ortzadar eta guzti», azaldu zuen bere garraian argazkia bidali zuenean. Sari bezala, mariskada bat jasoko du, Gabiriako Korta jatetxean.

Zorionak irabazleei eta gainontzekoek datorren edizioan izango duzue aukera!

### » IRABAZLEAK

■ **Lehen saria.** Iker eta Ainarak Zarautzen aterako argazkiak jaso ditu botorik gehien. Berarentzat Getariako Saiaz hotelen asteburuko egonaldia izango da, gosaria barne.

■ **Bigarren saria.** Tolosako Naiara Olaetxeak irabazi du bigarren saria. Berarentzat argazki erreportaje bat izango da aukeran, Karlis argazki dendaren eskutik.

■ **Hirugarren saria.** Villabonako Maria Dolores Arrieta rentzat izan da hirugarren postua. Berak Gabiriako Korta jatetxean bi lagunentzat mariskadaz gozatu ahalko du.

■ **Boto-emaleen artean.** HITZA-ko materiala Kristina Goikoetxearentzat izan da.

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen  
Gama



**TOLOSA MOTOR, S.A.**

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

## Bi sari eskuratu dituzte eskualdeko abeltzainek

**Tolosa** » Tolosako Lopetegi baserriko Raiz behia eta Zizurkilgo Makura baserriko Garra izan dira sarituak.

### ERREDAKZIOA

Baserritarasko gerturatu zen atzokoan Ferialekura, izan ere urteroko Gipuzkoako XL. Abeltzainen lehiaketa ari ziren ospatzen goizean goizetik. Aurtengoan bi zatitan banatu dute lehiaketa; atzokoan blonda, pirenaika eta limousin arrazako sariak eman zituzten eta gainontzekoak azaroaren 14an banatu dituzte.

Abelburu dotoreak ikusi ahal izan ziren eta salmantan jarri zituzten 27 buruetatik 6 besterik ez zituzten saldu. Nabarmendu beharreko salmentarik ere egon zen, enkantean jarritako Limousin arrazako behietako bat 3.600 euroan jarri zuten eta azkenean 4.200 euroren truke saldu zuten.



Limousin, blonda eta pirenaika arrazako abereak bildu ziren. R. CALVO

### » SARITUAK

#### Pirenaika Txapelketa

■ **10 eta 20 hilabete artekoak.** Lehenengo saria Bergarako Inarre Azpikoa baserrikoa. Bigarren saria Zaldibiako Izar baserrikoa.

■ **20 eta 30 hilabete artekoak.** Lehenengo saria Idiazabalgo Urbizu-Berri baserrikoa. Bigarren saria Oñatik Dolaetxe baserrikoa.

■ **2,5 eta 5 urte artekoak.** Lehen saria Iruñeko Ibargoien baserrikoa. Bigarren saria Bergara Inarre Azpikoa baserrikoa.

■ **5 urte artekoak.** Lehen saria Idiazabalgo Urbizu-Berriko Galar-tza baserrikoa. Bigarren saria Iruñeko Ibargoien baserrikoa.

■ **Behi ekoizle onenaren saria.** Bergarako Inarre Azpikoa baserriko Kapritxo izeneko behia; 13 erditze, 5 urruxa eta 9 idisko.

■ **Aberekin Saria.** Zestoako Zokolo Berri baserriko aberea.

#### Blonda Arraza

■ **12 eta 14 hilabete bitarteko bigak.** Lehen saria Azpeitiako Eizmendi baserriko Diana. Bigarren saria Azpeitiako Agite baserriko Celeste.

■ **2 eta 3 urte bitarteko bigak.** Lehen saria Azpeitiako Agite baserriko Carla. Bigarren saria Azpeitiako Eizmendi baserriko Clara.

■ **3 eta 4 urte eta erditik gorako behiak.** Azpeitiako Eizmendi baserriko Ane. Bigarren saria Orioko Longa baserriko Arrio.

■ **4 urte eta erditik gorako behiak.** Lehen saria Azpeitiako Gaztelu baserriko Saioa. Bigarren saria Azpeitiako Agite baserriko Sanoki.

■ **Ekoizlerik handiena.** Aiako Etxenagusia baserriko Ilusa; 13 erditze izan ditu.

■ **Aberekin saria.** Azpeitiako Eizmendi baserriko Ane.

#### Limousin Arraza

■ **12 eta 14 hilabete bitarteko bigak.** Lehen saria Zumarragako Olarte baserriko Alma. Bigarren saria Oiartzungo Lete baserriko Zeru.

■ **2 eta 3 urte bitarteko bigak.** Lehen saria Urretxuko Donardegi baserriko Valeria. Bigarren saria Beizamako Urki baserriko Zkabi.

■ **3 eta 4 urte eta erditik gorako behiak.** Lehen saria Zumarragako Olarte baserriko Udane. Bigarren saria Beizamako Urki baserriko Vbai.

■ **4 urte eta erditik gorako behiak.** Lehen saria Tolosako Lopetegi baserriko Raiz. Bigarren saria Beizamako Urki baserriko Uaska.

■ **Ekoizle handiena.** Zizurkilgo Makura baserriko Garra.

■ **Aberekin Saria.** Zumarragako Olarte baserriko Udane.



## Jaien azken eguna ospatuko dute

**UGARTE** » Gaur amaituko dira Errosarioko Amaren Jaiak. Besteak beste 18:00etan herri kirolak egongo dira; 20:30ean sagardo dastaketa eta iluntzean Laja eta Landakanda. Atzo berriz txikienek puzgarrietan eta ohe elastikoetan ibiltzeko aukera izan zuten, baita zaldien gainean ere. Helduagoek Mus Txapelketan hartu zuten parte. A. IMAZ



## Sua kaleetan eta herensugean

**IRURA** » Jaietako herensugea atzo erre baldin bazuten ere, Jubilatuen Eguna urriaren 11n ospatuko dute. Aurtengo ekitaldi oparoen amaiera atzo ospatu zuten Iruran. Eguerdian ezkonduen sokadantza burutu zen eta iluntze aldera, ekitaldi esanguratsuen artean, Les Diables de Canovilles-en kale animazioaz gozatu zuten, suzko ikuskizun aparta. A. IMAZ

## AHTren aurkako eguna ospatu dute Aiztondo bailaran

### ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna izan zuten atzo Aiztondon. Goizean 15 bat pertsonak mendi marxa egin zuten Adunatik abiatuta. Ibilaldia Zizurkilgo Joxe Arregi Plazan bukatu zuten eta bertan bazkaldu eta gero Gazume eta erraustegiaren inguruko erakusketa izan zuten. Eguna bukatzeko *Klawnstrofobia mendian* antzezlan ikusi zuten eta Imanol bakarlarria ere aritu zen.



Gazume eta erraustegiaren inguruko erakusketa jarri zuten. HITZA

## Hilaren 12an «gerra zikinaren» kontra agertzeko deia egin dute

### ERREDAKZIOA

Pasa den apirilaren 18an desagertutako Jon Anza euskal militantaren senitartekoen, lagunen eta GALen biktimen familiek, tartean Tolosako Joxi Zabalen eta Joxean Lasaren senitartekoen, hilaren 12an «gerra zikinaren» aurrean mobilizatzen jarraitzeko deia egin zuten atzo Hernanin eskainitako prentsaurrekoan.

«Urriaren 12an ez dugu ezer ospatzeko. Egun honek errepresioa, Guardia Zibila, tortura eta gerra zikina sinbolizatzen du Euskal Herrian. Honen aurrean konponbide demokratikoa da guk aldarrikatzen duguna. Eta argi dugu bide errepresiboa eta soluzio demokratikoak ez direla osagarriak, kontrajarriak baizik», nabarmendu zuten agerraldian.

E **Elkarrizketa****IÑIGO SARASOLA** Realeko jokalaria

**Villabona** » Futbolari bezala bere ametsetako bat lortu du Iñigo Sarasolak: Realeko lehen taldean aritzea; orain taldea Lehen Mailara igotzen laguntzea du erronka.

IMANOL GARCIA

Defentsan ezker hegalean aritzen da Iñigo Sarasola (Villabona, 1987). Arratzainen hasi zuen bere futbol ibilbidea, Billabona Kirol Elkarte-an. Benjaminetan eta alebinetan izan zen herrikotaldean. Infantiletan sartu zen Realean, proba batzuk egin eta gero, eta bertan izan da kadeteetan, jubeniletan, Sansen eta aurten lehenengo taldean hasi du denboraldia. Sarasola dagoeneko izena hartzen ari da. Elkarrizketaren ondoren, Arratzainetik ateratzean, eskolatik ateratzen ziren haur batzuk autografoa eskatu baitiote. Futbol profesionalaren munduan sartu da billabonatarra.

**Pixkanaka igotzen joan zara Realean. Ametsa bete duzu lehen taldean sartuta?**

Egia esan hasieran sartzaren infanteletan ez duzu pentsatzen Realera igoko zarenik. Ondo pasatzera joaten zara, maila handiko partidak jokatzeko aukera duzu, talde onenen aurka. Baina gero pixkanaka igotzen joaten zara eta Sansera iristen zara eta ikusten duzu aukera izaten duzula. Amestu eta lan egiten duzu gogor. Azkenean suertatu da eta oso pozik.

**Hala ere bidean geldituko dira batzuk.**

Bai, jende asko. Gertatu daitezke gaztetan oso ondo ibiltzen dena, ziur igoko dela uste duzuna gero bidean gelditzea. Eta zu aldir, ez zarela nabarmendu, taldeko beste bat izan zarela... azkenean ateratzen da gutxiena espero duzuna. Sorpresa asko egoten dira eta mugimendu asko. Urtetik urtera futbola asko aldatzen da eta ez bazoaz hobetzen eta garatzen, bidean gelditzen zara.

**Justu zure postuan aldaketak izan dira azkenaldian. Balentziaga eta Castillo taldetik ateratu dira eta bidea ireki dute.**


Alde horretatik zorte pixka bat ere izan dut. Orain aprobetxatu egin behar dut aukera hori.

**Aurtengo denboraldian bi partida jokatu dituzu, azkeneko biak, hain justu. Zer moduz ikusi duzu zure burua?**

Egia esan ondo ikusi dut, konfidantzarekin eta taldeari ekarpenak egiteko gogoarekin. Minutuak gehitzen joaten diren heinean, gero eta hobeto jokatzeko asmoz.

**Nola definituko zenuke zure burua futbolari bezala?**

Ez naiz ezertan berezik nabarmen. Ez naiz ez oso azkarra, ezta oso teknikoa ere, eta fisikoki



I. GARCIA

## «Ondo ikusten dut neure burua, konfidantzarekin eta ekarpenak egiteko gogoz»

ere ez naiz nabarmen, baina arlo denetan maila badaukat.

**Nola ikusten duzu taldea?**

Puntuen aldetik ondo goaz, baina joko aldetik pixka bat kostatzen ari zaigu, batez ere etxean. Taldea egiten ari da, entrenatzaile berria da eta ea pixkanaka gauzak hobetzen joaten diren eta taldeak automatismoak hartzen dituen, horrela errezago ateratzeko gauzak.

**Sansetik Bigarren Mailara alde egongo da, ezta?**

Aldea badago, baina ez hainbeste.

Nik alde gehiago nabaritu nuen jubeniletatik Sansera pasa nintzenean, hau da, Bigarren Bra, maila horretatik Bigarren Mailara pasatzean baino. Jubeniletan jokariak zure adinekoak dira eta indarra paretsua da. Bigarren B mailara joaten zaren, 28 edo 30 urtekoak daude eta eskarmentu handiagoa dute. Bigarren Btik Bigarren Mailara errotua eta intentsitatea bai, baina jendea eta eskarmentu antzekoak dira.

**Helburua Lehen Mailara igotzea**

**da, noski. Zein izango dira bide horretan aurkariak?**

Oraindik goiz da esateko, baina nik uste dut Betis, Rayo Vallecano, Numantzia, Hercules... horiek goian ibiliko dira seguru. Eta gu ere bai.

**Igandean [gaur] Numantziaren aurka duzue partida. Ez da erraza izango.**

Partida zaila izango da. Guretzat proba on bat izango da ikusteko benetan non gauden. Gorabeherak izan ditugu partidetan eta proba ona izango da partida hau.

» **DI-DA BATEAN**

- **Futbolari bat?** Dani Alves.
- **Ezker hegaleko defentsa bat?** Felipe Luis.
- **Jokatu duzun partida bat?** Realekin debutatu.
- **Ikusi duzun partida bat?** Real azpitxapeldu gelditu zenean 4-2 Real Madrili irabazi zionean.
- **Realeko jokalaria bat?** Xabi Alonso.
- **Zenbat partida ikusten dituzue astean zehar?** Batzuk bai. Askok gustatzen zait futbola ikustea eta etxean kekatzen dira.
- **Futbola ez den kirol bat?** Tenisa.
- **Kirola ez den zerbaite?** Musika.
- **Futbolari izatearen alde ona?** Gehien maite duzuna egiten duzula.
- **Futbolari izatearen alde txarra?** Batzuetan irabazteko presioa.

**Balentziagarekin eta Joxe Ramon Eizmendi entrenatzailearekin topatuko zara han.**

Bai, Balentziaga lagun ona da eta Ramon entrenatzaile bezala izan nuen. Athletic-eko jokariak badaude ere eta beti beraiekin tratu gehiago duzu. Numantziaren aurka jokatu dugu, baina kontaktu asko ditut bertakoekin eta partida oso polita izango da.

**Ezagutzen ez zenuen entrenatzaile batekin ari zara jokatu. Nola ikusten duzu bere lana?**

Entrenatzaile batetik bestera beti ezberdintasunak daude. Bakoi-tzak bere pentsatzeko modua du. Sanserekin konparatuta, han futbola formazioaren aldetik ikusten da. Emaiztak bigarren maila batean gelditzen dira. Lehen taldean, aldiz, lehenengo gauza emaitza da, irabazi egin behar da eta horretarako ahal duzuna egiten duzu. Gero joko etorriko da, baina garrantzitsuen irabaztea da.

**Disfrutatzen duzu partidetan?**

Jokatu dudun partidetan asko disfrutatut dut. Realeko kamiseta jarri, zelaira atera, baloia ikutu eta... Nik behintzat asko disfrutatzen dut eta gainera irabazten baduzu eta partida ona egiten baduzu, barrutik betetasun handia izaten duzu.

**Aldagelan euskaraz hitz egiten al da?**

Pila bat entzuten da. Jende eskaldun pila bat dago: Labaka, Aranburu, bizkaitar batzuk... Gehiena hitz egiten dena euskaraz da.

**Esan ohi da pribilegiatuak zarela futboleko jokatzeko duzuenak.**

Gehien maite duguna egiten dugu eta horregatik ordaindu egiten digute. Zer gehiago nahi duzu? Ni behintzat horrela oso pozik bizi naiz.

**Villabonako futbol taldearekin harremanik baduzu?**

Entrenatzaileak herrikoak dira eta lagunak ditut.

**Realean badago beste billabonatarrik?**

Bai jokalaria badaude jubeniletan. Jokatzeko ikusi ditut eta oso ondo aritzen dira.



Aurrerako dantzarien Xiberoako makil dantzak giroa gori-gorian jarri zuten. A. IMAZ



Aurrera Elkartetik plazara tirolinaren bidez. Plazan pilotan eta zaldiz ibili ziren. A. IMAZ

## Aurrera Egunean kirola eta jaia

**Leitza** » Aurrera Kirol Elkarteak bere eguna ospatu zuen atzo jai giroan. Egun guztian hamaika ekitaldi burutu zituzten plazaren inguruan.

### ASIER IMAZ

Eguraldi ederraren laguntzarekin ospatu zuten atzo Aurrera KE Eguna Leitza. Elkarteko bazkideek, eta oro har herritarrek, ha-

maika ikuskizunetz gozatu zuten herriko plazaren inguruan.

Goizean haurren guneak nagusitu ziren eta arratsaldean helduen txanda iritsi zen.

### Haurrentzat ekitaldiak

Eguna txistularien dianak jarri zuten martxan 09:00etan. Txikiak kalera irtetearekin batera, gurusoak plazaren inguruan elkartu ziren.

Aurrera Elkarteko balkoi batean tirolina jarri zuten antolatzaileek, haur ausartentzat. Eskalatazileentzat rokdromoa eta animalia zaleentzat zaldian itzuliak emateko

aukera. Batetik bestera ibili zenik ere izan zen.

Bien bitartean, plazako frontoian, Aurrera Pilota Eskolako ikasleek pilota saioa eskaini zuten.

### Dantza emanaldi aparta

Aurrerako dantzariak ikuskizun bikaina eskaini zuten eguerdian. Bertan bildu zirenek bat egin zuten dantzariekin, giroa ederki be-

rotuz. Xiberoako makil dantza ikusgarria izan zen, baita ondoren etorri zen Sorgin dantza ere.

### Bazkaria eta poteoa

Karrapen Aurrera Elkarteko bazkideek bazkaria egin zuten ondoren. Amaieran ingurutxo dantza zuten. Arratsaldean zehar Incansables txarangaren eskutik poteoa burutu zen.



## '10 tanta'-ren aurkezpena

**TOLOSA** » Alos Quartet taldeak bere azken lana, *10 tanta*, aurkeztu zuen ostiral iluntzean Tolosako GKO Galleryn. Diskoan 10 musikari aritu badira ere, taldea lauk osatzen

dute, eta horietako bat Xabier Zeberio tolosarra da. Etxekoez inguratuta egin zuen diskoaren aurkezpena eta bideoklipa eta disko-ko abestietako batzuk jo zituzten. R. CALVO



## Merkatari onenaren saria

**TOLOSA** » Hunkituta jaso zuen Maite Jimenez merkatariak Alde Zaharra Dendak elkarteak banatu ohi duen merkatari onenaren saria. Maite perfumeria eta estetika

zentroko jabea da Jimenez eta orain 35 urte ireki zuen denda. Denda txikien lana nabarmendu zuen, «supermerkatu handiak inpersonalak baitira», esan zuen. R. CALVO



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegia izena emateko aukera dago. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara joan beharko da euskaltegia edo 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 zenbakietan lortu ahalko da informazioa.

■ **Tolosa.** Arraunean hasi nahi dutenentzat deialdia zabaldu du TAAKek, 2000. urtea baino lehen jaiotzen zirenak. Zerkausiarren behetxe lokalera azaldu beharko dute interesatuek astelehen, asteazken edo ostiral arratsaldeetan.

■ **Tolosa.** Helduen Hezkuntza Eskolan ikasturte berrirako izena emateko epea irekita dago. 18 urtetik gorakoentzat doako ikaskuntza eskaintzen dute. Helduen Hezkuntza Eskolan (Igaralde kalea, 23) edo 943 67 26 60 telefono zenbakian.

■ **Villabona.** Jubilatu Astearen amaiera: 12:00etan Biltokin elkar-tu, txistulari bandarekin elizara, 12:30ean meza bazkide hildakoen alde Eresargi abesbatzarekin, 13:30ean autobusa Olaederatik, 14:00etan bazkaria Usabal sagardotegian, omenaldia, sari banaketa eta dantzaldia.

### Erakusketa

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.

■ **Ibarra.** Urriren 30era arte Benito Izagirre kultur etxean San Bartolome jaietako argazki erakusketa.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirreraren pintura erakusketa Aranburun.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Azur eta Asmar* haur-errentzako filma; 19:30etan, *Que pasa con los hombres* filma, eta 22:30etan, *Mapa de los sonidos de Tokio* filma. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30etan, *Mapa de los sonidos de Tokio*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Kooreo kalea, 20. 943 67 24 38.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

#### Bihar

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Egurrarekin berreraikitako jolasak

**TOLOSA** ■ Egurrezko jostailuak nagusitu ziren atzo Tolosan. Jostailuak Herrialde Katalanetako Tombs Creatius taldeak ekarri zituen Tolosako Kormertzio Foroak gonbidatuta. Egurra material naturala delako erabiltzen dute jostailuak egiteko, eta jokoak oso jatorri desberdinekoak badira ere, jolas zaharrak berreraikitzen dituztela diote. Tombs Creatiuseneko kalea

maite dute, era berean, euren ustez «gizarteratzeko gunea» baita, eta atzo aukera paregabea izan zuten hori praktikan jartzeko, goizean Plaza Berrian eta arratsaldean San Frantzisko ibiltokian izan baitziren. Jolastera gerturatutako gehienak umeak izan ziren, nahiz eta helduentzako jolasak ere badituzten. R.CALVO

## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

# agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**mantangori** rekin  
**Zinema etxean 4**  
urriaren 10etik aurrera larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berriro mendian
3. Dattu eta Yonadutxo mitelak
4. ...
5. ...
6. Prop & Berta

6 DVD euskaraz

berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 €  
ESKARIA EGITEKO 943 30 43 45  
harpideta@berria.info  
edo www.berria.info

Babedez: **LEZIO JUBILATZA EGUTIA**

Aukera ezazu. Bizi euskaraz **berria**